



BARREN
TOKIKOM

Azken bidaia





JOSEBA ASTIGARRAGA (Elgoibar, 20 urte)
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN)
graduako 3. maila ikasten ari da.

***“Gustuko dituzun alorretan
proiektu errealak egiteko
askatasuna ematen dizu
LEINN graduak”***

■ **Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**

Elgoibarko Ikastolan egin nituen lehen eta bigarren hezkuntza. Gero, Gizarte Zientzietako Batxilergoa Elgoibarko BHIIn egin nuen. Nire zaletasunen artean, ikaragarri gustatzen zait musika entzutea, bai eta kirola egitea ere.

■ **Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Gustuko ditugun alorretan proiektu errealak egiteko askatasuna ematen digulako aukeratu nuen gradua. Horrez gain, banekien Mondragon Unibertsitatean metodologia berritzaileak erabiltzen dituztela eta talde lana sustatzen dutela.

■ **Nola baloratuko zenuke LEINNen bizitako esperientzia?**

Ikasketaz betetakoa. Graduan sartzen zaren momentutik talde baten parte zara eta taldekideekin batera esperientzia asko bizitzen dituzu lau urtean, onak eta txarrak. Prozesua oso berezia da. Hain gazte izanda, mundu “errealan” proiektu bat aurrera ateratzeko enpresa bat sortzea ikaskuntza onena da.

■ **Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Zer azpimarratuko zenuke?**

Metodologia berritzaile eta praktikoa da. *Learning by doing* metodologia erabiltzen dugu hemen. Hau da, egiten ikastea. Zer egin behar dugun esaten diguten irakasleak beharrean *coach*-ak ditugu eta, azterketak beharrean, enpresa helburu errealak. Pertsonalki eta profesionalki zenbat garatzen garen azpimarratuko nuke.

■ **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**
Unibertsitatean talde bakoitzak bere lan espa-

zioa du egunerokotasunerako, bertan proiektuak aurrera eramanez. Horrez gain, ekintzaile sare handi bat dugu, beste kurtsoetako talde eta ekintzaile gehiago biltzen dituen.

■ **Lehen egunetik, unibertsitatean enpresa bat sortu eta proiektuak garatu; nola egiten da hori?**

Gauzak egiteko gogo handiarekin eta jarrera aktiboarekin. LEINNen, lehen egunetik sustatzen da jarrera proaktiboa, enpresa bat eratu behar duzun momentutik. Hortik aurrera, proiektuak garatzen hasten zara. Poliki-poliki horiek hobetzen doazela, gehienbat egindakoaz ikasten eta irakurtzen.

■ **Ze proiektu mota garatu dituzue LEINN graduan zehar?**

Denetarik. Lehengo mailan, itsuki sartzen ginen proiektu askotan. Baina, urteetan zehar, bakoitzak badaki zer arlo duen gustuko. Lehengo mailan, kirol ekitaldi eta bidaiak antolatzen genituen, besteak beste. Orain, adibidez, hezkuntza arloan gazteen autoezagutza bultzatzen duen karta jolas bat sortu dugu, eta baita turismoa sustatzen duen *escape room* berritzaile bat ere. Horrez gain, lantzen ditugu teknologia, elikadura eta beste hainbat arlo, beti berrikuntzari lotuta.

■ **Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango dituzu? Non? Nolakoak izan dira?**

Graduan hiru bidaiak egiten dira. Lehengo mailan Finlandian izan nintzen, bigarren mailan Estatu Batuetan, eta orain momentuan nire azkenengo bidaiari nago, Hego Korea. Bidaiak oso bereziak izan dira, beste herrialde bateko kultura sakon bizitzea oso aberasgarria baita. Eta beste taldekideekin eguneko 24 orduak bizitzeak ere asko erakusten du.

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Mirzakhani edo emakumeen indarra, matematikan ere

tiaren ondorengo lehenbiziko emakume matematikari ezagunak, XVIII. mendekoak, jadanik. Bide-urratzaileak, hauek ere, kostatuta ahala kostatu.

XIX. mendean, bide beretik, gauzak oso zailak izaten jarraitzen zuten arren, talentuak eta ahaleginak bilatu zuten biderik Ada Lovelace eta Florence Nightingale emakume ingelesena, Sofia Kovalevskaya errusiarrarena edo Emmy Noether alemaniarrarena bezalako kasuetan. Punta-puntako matematikariak guztiak; tradizioaren hormarik sendoa

“1936an Fields domina banatzen hasi zirenetik 60 banatu dituzte, baina bakarria izan da emakume batentzat”

eta ilunenek eutsi ezin, ezkutatu ezin, emakume indartsu hauen etorria.

Gaia hurbiletik ezagutzen duen edonorentzat, zientzian orokorrean, eta matematikan bereziki, emakumeek duten gaitasuna, gutxien-gutxienez, gizoneen parekoa dela eztaba daezina izan arren, XXI. mendean, oraindik, desabantaila nabarmenei aurre egin behar izaten diete. Zailtasun atabiko horren hezurramitze metaforiko gordina izan daiteke Maryam Mirzakhani-rena. Nobel sarien parekoa den sari bat bada matematikarien artean: Fields domina. 1936an banatzen hasi zirenetik 60 Fields domina banatu dituzte. Bakarria izan da emakume batentzat urte horietan guztietan. Maryam Mirzakhani matematikari irandarrari 2014an emandakoa. Maiatzaren 3an 44 urte beteko lituzke. 2017an hil zen ordea. Minbiziak eraman zuen.

K.a. 600. urte ingurukoa da ezagutzen den lehen gizonezko matematikaria: Miletoko Tales; K.o. 400 urte ingurukoa, berriz, ezagutzen den lehen emakumezko matematikaria: Alexandriako Hipatia. Biak aspaldikoak diruditen arren, mila urteko aldea dago bien artean.

Oso bakanak dira, gainera, harrezkeroko emakume matematikari ezagunak, gizonezkoekin alderatuta. Émilie du Châtelet eta Marie-Sophie Germain frantziarrak, Maria Gaetana Agnesi italiarra, Wang Zhenyi txinatarra eta Mary Somerville eskoziarra dira Hipa-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzararen Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizkako ataletan adierazitako enantziak.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MAIATZAREN 8AN, MORKAIKORA

Maiatzaren 8an 650 tontor igo nahi ditugu Euskal Herri guztian euskal presoek eskubideak bermatuak izan daitezten, eta bizikidetzeta eta bakea lortzeko. Izan ere, egoera politiko berezi honi ahalik eta etekin gehien atera behar diogula adierazten genuen orain dela hilabete batzuk, eta aipatu beharra dago aurrerapausoak ikusi ditugula presoek egoeran: urrutien dauden espetxeetatik Euskal Herrira edo Euskal Herritik hurbilago dauden espetxetara hurbildu dute preso kopuru denente. Andaluzian eta Galizian euskal preso gutxi daude une honetan. Ez da nahi duguna, ezta beharko litzatekeena haien eskubideak errespetatuak izango balira, baina indarra eta adorea eman behar digute aurrera egiteko: urrutze politika lehenbailehen buka dadin, euskal presoak Euskal Herriko espetxetan egon daitezten, gradu-progresioa aplikatu dadin, gaixotasun larriak eta adin handia dituzten presoak berehala aska ditzaten, 80 motxiladun meen egoera konpondu dadin...

Adostasun politiko, sindikala eta soziala oso handia da gai hauen inguruan. Bihurto dezagun adostasun hori mobilizazio. Maiatzaren 8an elgoibartarrok Morkaikora igoko gara aipatutako eskaerak aldarrikatzera. Aurrerago emango dugu detaile gehiago baina gorde data hau agendan. Denon artean lortuko dugu!

Sare Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Lesboseko errefuxiatuen kanpalekura bidaltzeko janari bilketa egingo dute Debabarrenean apirilaren 12tik 17ra

Zaporeak sukaldari elkartearen ekimenez, Lesboseko errefuxiatuei banatzeko janari bilketa egingo dute datorren astean Debabarreneko hainbat herritan, tartean, Elgoibarren. Herri bakoitzean elikagai bat batuko dute, eta Elgoibarren, txitxirio pedrosillanoa batuko dute. Ikastetxeetan eta merkatu plazan jarriko dituzte bilguneak. Ekimen honen aurkezpena astelehenean egingo dute, 17:30ean, merkatu plazan.

Erronka solidarioa

Zaporeak taldearen ekimen hau Eibarrek eta Ermuak hasi zuten, eta aurten Mallabia eta Elgoibar batu zaizkie. Herri bakoitzak ahalik eta elikagai kilo gehien lortzea da erronka,

Lesbosera bidaltzeko. Eibarrek dilista pardina batuko du, Ermuak arroz biribila eta Mallabiak hodi formako makarroiak. Arduradunek zehaztu dute oso garrantzitsua dela eskatzen den motako elikagaia ematea, gero dena batera sukaldatu ahal izateko.

Elikagaiak biltzeaz gain, tupper solidarioa ekimena egingo dute Ermuan. Dilistak bakailaoarekin eta arroza oilasko lumagorriarekin sartuko dituzte tupperrean eta fruta ale batekin batera ere salduko dituzte, 5 euroan. Ermuko Orbe plazan izango da, hilaren 17an, 14:00etatik 15:00etara. Era berean, errifak ere jarriko dituzte salgai, eta batzen duten diru guztia Lesbosera bidaliko dute.

Udalbusaren prezioa gehiegizkoa dela uste du Gaurgeroa-Duintasunak, eta pentsiodunentzat eta behartsuenentzat doakoa izatea eskatu du



Elgoibarko Gaurgeroa-Duintasuna pentsiodunen mugimenduak poza adierazi du Elgoibarko Udal Gobernuak "amore eman" duelako eta auzoetarako udal autobus zerbitzua mantenduko duelako. Oso albiste ona dela esan dute, baina bidaia bakoitzagatik kobratuko duten euro bateko prezioa "gehiagizkoa" iruditzen zaie, eta honako galdera luzatu diote Udal Gobernuari: "Pentsiodunek %50eko beherapena izango dute, baina Udal Gobernuak inor hasi al da pentsatzen pentsio baxua duenari zer suposatzen dion prezio horrek?". Gabezia larritzat jo dute eta irtenbidea topatzeko lanean hasteko eskatu dio Gaurgeroa-Duintasunak Udal Gobernuari, hura sostengatzen duten alderdiei eta Udalean ordezkariak izan behar duela pentsiodunentzat, langabeentzat eta Elgoibarko sektore behartsuenentzat. Beraien ustez, zerbitzu hori ezin da ulertu ekonomiaren ikuspegitik: "Hori baino askoz gehiago da. Gure herriaren kohesiorako funtsezko tresna da", azaldu dute.

Mintxeta inguruan beste bederatzi kale-argi ipini dituzte

LED teknologiadun bederatzi argi puntu ipini ditu Elgoibarko Udalak Mintxeta inguruan egin dituen argiteria hobetzeko lanetan. Hiru metroko farolak ipini dituzte, 26Wkoak. Kale-argi berriek eta horiek bere lekuan ipintzeko lanek 3.500 euroko (BEZ gabe) aurrekontua izan dute. Lehen ere bazeuden farola batzuk, baina horien argia ez zen nahikoa Mintxeta inguratzen duen pasealekuko gune guztiak argitzeko.



2020ko aurrekontuen gerakina erabiltzeko hainbat proiektu eta ekimen proposatu ditu Mendaroko EH Bilduk

Apirileko osoko bilkuran onartuko du Mendaroko udalbatzak 2020. urteko likidazioa (3.200.000 euro) eta diru hori aurrekontuetan onartu ez dituzten beste zenbait proiektu gauzatzeko erabiltzea proposatu dio EH Bilduk udal gobernari. Mendaroko Udalak 2.700.000 euroko aurrekontua dauka onartuta aurtengorako. EH Bildutik nabarmendu dute Udalak dirua daukala, baina aldiz, herritarren "oinarizko beharrian batzuk" ase gabe daudela, eta "herritarrentzat premiazkoak edota interesgarriak diren" proposamenen zerrendatu osatu dute.

Bid dirulaguntza-lerro berri martxan jarri diren eskatu dute batetik: herritarrek anbulak zerbitzatu edo ospitalera eramateko auto taxi zerbitzua martxan jartzeko (5.000 euro) eta herritarren ekonomia sustatzeko dirulaguntza berriak martxan jartzeko (150.000 euro): enplegua sortzera bideratutako dirulaguntzak, industri proiektu estrategiko eta berri-tzaileak bultzatzen dituzten inbertsio proiektuak eta genero-berdintasuna eta ekin-tzailtasuna sustatzeko. Horiez gain, baina, beste proposamen batzuk ere egin ditu, ondoko zutabearen puntuz puntu jasotakoak.

- ◆ Herriko Enparantza komun publikoa jartzeko: 60.000 euro.
 - ◆ Ospasko aparkalekua asfaltatzeko: 250.000 euro.
 - ◆ Udal eraikinetako teilatuetan plaka fotovoltaikoak jartzeko: 150.000 euro..
 - ◆ Landa lurra erosteko eta kudeatzeko: 250.000.
 - ◆ Erreka eta ibai bazterretan sareak jartzeko, zikinkeria uretara ez jausteko. 25.000 euro.
 - ◆ Mutriku, Deba eta Zumaiako Geoparkearen proiektuari lotuta, Arno-lzarraitzeko Karstaren interpretaziogunea martxan jartzeko: 25.000 euro.
 - ◆ Herriko liburutegia berrantolatze eta eskaintza hobetzeko lanak eta materiala erosteko. 25.000 euro.
 - ◆ Herrigunetik urrunen dauden biziguneetara telefonia eta Internet "zerbitzu duinak" eramateko. 60.000 euro
 - ◆ Ikastolako ikasgeletan eta bulegoetan, udaletxean, gimnasioan, ludotekan, gazte-telekuan nahiz herriko taberna eta dendetan CO2 neurgailuak jartzeko, Covid-19a zabaltzeko arriskua neurtu eta lokalen aireztapena modu egokian egin ahal izateko. 10.000 euro.
- Horiez gain, ikerketak eta aurreproiektuak egiteko diru-partidak ere zehaztu dituzte. Honako hauek:
- ◆ Etxebizitza beharren behatokia ikertzeko. 15.000 euro.
 - ◆ Udaletxeko lanpostuen zerrenda eguneratzeko: 25.000 euro.
 - ◆ Herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plana egiteko. 25.000 euro.
 - ◆ Toki-Alai taberna ikastolako haurren zaintzarako gela eta jangela bihurtzeko aukera aztertze: 10.000 euro.
 - ◆ Mendarotik Elgoibarrerako bidegorria bideratzen hasteko: 20.000 euro.

Egungo basogintza ereduarentzako "alternatiba" aurkezteko hitzaldia emango dute Errez Kooperatibako bi lagunek Mendaron gaur arratsaldean

Alternatiba berria basogintzan izenburuko hitzaldia emango dute gaur Mendaron Errez Kooperatibako Markel Arriolabengoa Martiarenak eta Iñaki Etxebeste Larrañagak, Mendaroko Udalak eskatuta. San Agustin aretoan izango da hitzaldia, 18:00etan hasita, eta pandemiagatik hartu beharreko neurriak zain-tzeko, lekua mugatua izango dela aurreratu dute Udaletik. Hitzaldian, Tantai Baso-Jabe Kooperatiba ere aurkeztuko dute Arriolabengoak eta Etxebestek.

2018. urtean sortu zuten bi gizon hauek Errez Kooperatiba. Aramaioarra da Arriolabengoa eta arrasatearra Etxebeste, eta basogintzarekin lotutako lanak egiten dituzte: baso kudeaketa planak, landaketak, baso neurketak... Haien ustez, gaur egun arte nagusi izan den baso eredu "agortuta" dago, eta horregatik, klima aldaketa eta egungo ustiaketa ereduaren aurrean, bestelako basogintza ereduez hitz egingo dute, bai eta "alternatiba bat" aurkeztu ere: Tantai Baso-Jabe Kooperatiba sortzea.



Gaikako zabor bilketak bilakaera "positiboa" izan du urteko lehen hiruhilekoan

Debarreneko Mankomunitateak urteko lehen hiruhilekoaren balorazioa egin du, eta esan dutenez, gaikako zabor bilketak "bilakaera positiboa" izan du epe horretan. Emandako datuen arabera, 2021eko lehen hiruhilabetean iaz baino 85 tona errefus gutxiago bildu dituzte Debarrenan, eta gaika bildu duten organiko kopuruak, berriz, 43 tona egin du gora. Mankomunitateak lanean dihardu etengabe eskualdean gaikako bilketaren datuak hobetzeko, eta 2030erako %70eko gaikako bilketara iristea du helburu. Horretarako, besteak beste, edukiontzi bakoitzean zein hondakin utzi daitezkeen lantzen jarraituko du gizartea osatzen duten herritar, eragile eta erakundeei zuzendutako sensibiltzazio ekintzen bidez.



Jesus Rocandioren argazki erakusketa, gaurtik hilaren 24ra Kultur Etxean

Gaur hasi eta apirilaren 24ra bitartean Jesus Rocandio argazkilari errioxarraren lanak jarriko ditu ikusgai Ongarri Argazkilari Taldeak Kultur Etxean, Udaleko Kultura Sailaren laguntzaz. *Universo Bosque* izena jarri dio argazkilariak lanari, eta azken hiru urteetan eginiko erretratuekin osatu du bilduma. Bost kontinenteetako botanikoen laguntzarekin egin du lan hau, eta lurreko azken baso primarioak zaintzeko beharraz kontzientziaztea du helburu. Lurralde naturalak izango dira nagusi, denboraz kanpokoak eta giza presentziarik gabek. Astelehenetik zapatara egongo da ikusgai erakusketa, 18:30etik 20:30era. Domekan itxita egongo da.

'Ingeniaritza pilulak' egitasmoak harrera "ezin hobea" izan du

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna ren harira *Ingeniaritza pilulak* egitasmoa antolatu zuen Elgoibarko Udalak herriko emakume ingeniariarekin. LH6ko eta DBH1eko ikasleek hartu dute parte egitasmoan, eta herriko emakumeek egin duten eta egiten duten lana ezagutzeko aukera izan dute, bai eta haiekin batera hainbat esperimentu egiteko ere. STEAM alorreko bost zientzialariren ahotik jaso dituzte azalpenak gazteek: Amaia Kaltzakorta, Dorleta Fernandez (Alcorta Forging Group), Ane Garmendia (Gaindu S.L.), Nagore Escudero (CodeSyntax) eta Natalia Solozabal (Doimak). Eta bai Udalak eta baita parte hartu dutenek ere balorazio positiboa egin dute egitasmoaz.



Era berean, Udaletik jakinarazi dute apirilaren 29an emango dutela Covid-19aren erruz atzeratu behar izan zuten *Matriuska* antzezlan. 12-13 urte bitarteko gazteentzat izango da emanaldia.



Arg.: Goiena

Trenak Debarroa lotzen zuenekoa

50 urte pasatu dira Zumarraga-Maltzaga arteko tren desagertu zela. 1971ko otsailaren 28an egin zuen hain zuzen ere tren hark azken bidia, eta data hori iristeaz bat garai hartako oroitzapenak piztu zaizkio Carlos Gonzalez (Irun, 1932). Trenari lotuta bizi izan da beti Carlos Gonzalez, eta garai hartan Bergarako tren estazioko nagusia zen. Berak eman zion irteera Bergaran azken trenari, herritarrek agur egiten zioten bitartean.

- AINHOA ANDONEGI -

Maltzaga eta Zumarraga arteko linea edo Debako Trena ere deitu zutena 1889an inauguratu zuten. Enpresa bat sortu zuten espreski azpiegitura sortu eta hornitzeko, eta tren zerbitzua ere enpresa hark berak kudeatzen zuen. 1906an beste konpainia batzuekin bat egin eta Ferrocarriles Vascongados sortu zuten, egungo Eusko Trenbideak enpresa publikoaren aurrekaria izan zena. Bilbo eta Donostia arteko linea ere martxan zegoen ordurako, eta ibilbide nagusi haren adar bilakatu zen Maltzagatik Zumarragarako linea.

22,7 kilometroko ibilbidea zeukan linea hark, trenbide estu eta konplikatuan zehar. Deskargako portua gainditzeko, adibidez, trenbideak malda gogorrak zituen eta bazituen baita ere 60 metroko erradioa gainditzen zuten bihurtuneak. Dena dela, linea garrantzitsua izan zen garai hartan, bidaiariei beste ibilbide batzuekin lotura egiteko aukera ematen zuelako. MadriHrun linearekin

lotura egiten zuten Zumarragan, eta baita Urolako Trenarekin ere, Zumaia-Zumarraga lotzen zituen linearekin. Bergaran, bestalde, Lizarrara joateko tren hartu zitekeen, Vasco Navarro linea zertizona, eta Maltzagan Bilbo-Donostia linearekin egiten zuen bat.


Garai hartan Carlos Gonzalez elgoibartarra zen Bergarako estazioko nagusia, eta orduan postu hori gauza handia izan zela gogoratzen du: "Garai batean zazpi geldialdi egiten zituen trenak Bergaran". Baina Bergarako estazioarekin batera, Maltzagako geltokiaren handitasuna nabarmendu du Gonzalezek. 1885. urtean hasi zituzten Maltzagako estazioa egiteko obrak eta 1887an inauguratu zuten: "Mugimendu handiko estazioa zen Maltzagako geltokia eta jende askok egiten zuen lan han. Hogeit bat etxebizitza zeuden langileak eta euren familiak bizitzeko".

Penaz gogoratzen du Zumarraga eta Maltzaga arteko trenaren azken eguna: "Herritar asko etorri ziren geltokira trenari agur

egitera. 11:37an irten zen trena Zumarragatik eta nik Bergaran eman nion Maltzagarako irteera, 12:12an. 83 urteko historiar azkena izan zen”.

Tren linea garrantzitsua izan arren, poliki-poliki hiltzen joan zen. Carlos Gonzalezek uste du errepide bidezko komunikazioaren hobekuntzak ekarri zuela trenaren gainbehera. Gero eta bidaia gehiago hasi ziren errepidez egiten, bai autobusez eta bai autoz ere ahal zuenak, eta tren ez bidaiatzen zutenen konpurua asko jaitsi zen. 1967an desagertu zen Vasco Navarro linea ere, eta horrek ere eragina izan zuela esan du Gonzalezek. Itxieraren ostean, Carlos Gonzalezek hainbat saiakera egin zituen Maltzaga eta Eskoriatza artean tren berrezartzeko, baina ez zuen lortu: “Hainbat alkaterekin bilerak egin genituen, baina ez zuten emaitzarik eman”. Ordurako La Bergaresaren autobus zerbitzua martxan zegoen, eta autobusak bezero asko kendu zizkion trenari: “Autobusa izan zen trenaren hondamendia”.

Linea itxi ostean hainbat bidaia egin izan dituzte merkantziako trenak ibilbide horretan, baina etorkizuna oso bestelakoa dauka garai hartako trenbideak. 2013an onartu zuten Gipuzkoako Ba-



tzar Nagusiek, behin betiko izaeraz, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Haren arabera, 2021a epemuga jarrita, bide berde bilakatu behar du bere garaian Maltzaga eta Zumarraga arteko trenak egiten zuen bidea. Soraluze eta Bergara artekoa eginda dago, baina gaur gaurkoz Bergaratik Zumarragara artekoa eta Maltzagatik Soraluze artekoa egiteke daude.

Carlos Gonzalez Elgoibarko estazioko buru zen garaiko argazkia.



1971. Bergararik pasatu zen azkenetariko merkantzia tren.

Trena nora, Carlos hara

Jaiotzez iruindarra da Carlos Gonzalez, baina 50 urte baino gehiago dira Elgoibarren bizi dela. 1932an jaio zen Irunen, eta 1971. urtetik bizi da Elgoibarren. Hala ere, nongoa den galdetuz gero, "leku guztietakoa" dela erantzuten du, eta leku guzti horiek dira hain zuzen ere berak lan egin duen bitartean bizi izandako lekuak. Trenaren norabidean bizi izan da Gonzalez, batean eta bestean. Bere aita ere treneko langilea zen, baina gerra garaian lanik gabe geratu zen. Gerra amaitu zenean ez zioten lanik ematen Euskal Herrian, eta horregatik urte askoan bizi izan ziren Valladoliden. Carlos bera 18 urterekin hasi zen tren sektorean lanean, eta besteak beste, txartelak saltzen eta trenbideak egiten ere jardun zen, bihotzeko gaixotasun bat diagnostikatu zioten arte. Medikuek beste lanen bat aurkitzea gomendatu zion, osasunaren mesedetan. Ikasketa gehiago egin zituen, eta postuak gora eginez joan zen, estazioko buru izatera iritsi zen arte. Bere buruan Euskal Herrira etortzea zegoen, eta Donostiara iritsi zen lehenengo. Hainbat tren estaziotan lan egin zuen ondoren, besteak beste, Durangon, Lemoan, Maltzagan, Bergaran... eta 1971n iritsi zen Elgoibarrera, hain zuzen ere, Maltzaga eta Zumarraga arteko tren linea itxi zutenean. 1993an erretiroa hartu zuen arte izan zen Elgoibarko estazioko nagusia, eta ordutik Elgoibar du bizileku.

Herrian oso ezaguna da, tren estazioan lan egindako sasoiatik. Jende askok ezagutzen du, eta jubilatuta ostean ere, kalean trenen ordutegiak galdetzen zizkieten. Eta berak, erantzun, jakina, jubilatuta egon arren, ez duelako trenarekin loturarik galdu. Bidaiatzeko trena du gustuko, garraribide seguruen iruditzen zaiolako. Trenean lasai joatea gustatzen zaio, baina gainerako bidaiariek leihotik begiratzen duten bezala, Carlos Gonzalezi trenaren alor tekniko eta mekanikoan fijasatzea gustatzen zaio. Gaur egungo trenak lehengoekin zerikusirik ez dutela dio, haiek "txatarra" hutsa zirela. Trenbideak ere garai batekoak baino askoz hobekak direla uste du, eta teknologiari esker trenak gero eta seguruagoak direla: "Semaforoa gorri bado, trena berez gelditzen da, eta baimendutako abiadura gaitzen badu, berak bakarrik frenatzen du". Hala ere uste du gaur egun jendeak nahiago duela beste modu batean bidaiatzea, eta pena ematen dio jendeak trena baztertu izana.



Gizon langilea izan da Carlos Gonzalez, eta treneko lanez gain, beste ogibide bat ere ezagutu zuen; kazetaritza. Sektore hau asko gustatzen zaiola aitortu du, eta garai batean barrutik ezagutzeko aukera ere izan zuela kontatu du: "Betidanik gustatu izan zait mundu hau, eta Bergarara iritsi nintzenean RNE irratian eskualdeko korrespontsala izateko aukera suertatu zitzaidan. Hasieran lagun batek idazten zizkidan kronikak, baina berehala hasi nintzen bakarrik lanean". Bost urtez aritu zen lan honetan Bergaran, eta gero beste bi egin zituen Elgoibarren. Denetariko informazioa ematen zuela gogoratzen du: Udaletxeko kontuak, istripuak, kirolak... "Korrespontsal guztiak elkartzen ginen albiste garrantzitsuenak tratatu eta zabaltzeko, eta abuztuan askotan bakarrik geratzen nintzen lan honetan eta nik bidaltzen nituen albisteak komunikabide guztietara". Garai hartan langabezia handia zegoela eta, estazioko lanari heldu eta korrespontsal postua lagun bati laga zion. Baina lan hura asko gustatzen zitzaion Carlosi, eta gaur egun ere asko gustatzen zaio egunkaria irakurtzea; eta ez hori bakarrik, trenarekin zerikusia duten artikulu eta informazioa gorde egiten du. Familiakoek eta lagunek kanponko egunkariak ere ekartzen dizkiote tarteka, eta haiek irakurtzea ere gustatzen zaio. Jubilatuta eta lasai bizi da, baina ez dauka aspertzeko denborarik.

Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Aizkorri kaleko barandari zati bat falta zaio:

“Aizkorri kaletik Urazandira joateko bidera jaisteko eskaileretan baranda hondatuta dago. Heldulekua falta zaio, eta oso arriskutsu dago gune hori. Bide berria egin zutenetik jende asko ibiltzen da ingurune horretan, eta eskertuko genuke konpontzea”.



Domeka goizetan parkeak ezin izaten dira

Derabili: “Basarte auzoko parkea zikinkeriaz beteta egoten da domeka goizetan. Zapatuetan dena zikin-zikin uzten dute, eta domeka goizean modu horretan aurkitzen ditugu. Umeekin joaten gara, eta han ez dago jolasterik. Ez dakit garbitzaileek zein ordutegi duten, baina kontuan izan beharko lukete egoera hau”.



Pilarreko aparkalekuak nazka ematen du:

“Pilar ikastetxea zegoen lekuan egin zuten aparkalekuak zikin-zikin egoten da, eta nazka ematen du. Jendea benetan zikina da herri honetan! Euria egiten duenean, gainera, sekulako putzuak sortzen dira. Guztiz lagata dago ingurune hori. Udalak ikastetxea bota zuen zahar-etxe bat egiteko, eta daukagun bakarra aparkaleku zikin bat da. Ezin bada zahar-etxea egin, gutxienez aparkaleku txukun bat eduki beharko genuke”.



Maalako zubitik Txarridunako errotondara bitartean oinezkoek dute lehentasuna:

“Gidariei gogorarazi nahi diet San Lazaro egoitza ingurutik Txarridunako errotondarainoko gunean oinezkoek dutela lehentasuna. Bi zebra-bide daude, baina jende askok kalearen norabidea jarraitzen du eta zebra-biderik ez dagoen lekuan gurutzatzen du errepidea, baina hala ere, lehentasuna dute eta autoak geratu egin behar dira. Bi kartel handi daude eta argi jartzen du oinezkoek dutela lehentasuna, baina hala ere, gidari askok ez dute kasurik egiten. Dena dela, egokiena zebra-bideetatik gurutzatzea dela iruditzen zait, baina bestela ere, autoak geratu egin behar dira”.



▶ **ZUHAITZ
GURRUTXAGA**
UMOREGILEA

Zuhaitz Gurrutxaga (Elgoibar, 1980) Herriko Antzokiko oholtzara igoko da gaur arratsaldean bere bigarren bakarrizketa aurkeztera: 'FutbolisTOK'. Lehen mailako futbol jokalaria izan zen garaiko pasarteak ekarriko ditu gogora, eta garai hartan bere azalean bizi izan zuen TOK nahasmenduari buruzko kontuak ere izango ditu mintzagai umoregile aiastiarrek. Gaurko emanaldia euskaraz izango da, eta gaur zortzi saio berbera eskainiko du, gaztelaniaz. 19:00etan izango dira bi saioak.

“Futbol zelaira ez galtzera irteten nintzen, eta oholtzara irabaztera irteten naiz”

♦ ‘FutbolisTOK’ bakarrizketa aurkeztuko duzu gaur Herriko Antzokian. Zeri buruzkoa da?

Futbolisto baten konfidentziak bakarrizketa izan zen nire lehenengoa, eta ordutik pasatu dira bost bat urte. Denbora tarte horretan jende askok esan izan dit ez zuela ikusi bakarrizketa hura eta gustatuko litzaikeela ikustea, eta hortik abiatuta osatu dut bigarrenkoa. Haren segida moduko bat da. Lehenengo bakarrizketaren esentzia bat hartu dut, berrituta, jakina, eta beste zenbait gai gehitu dizkiot.

♦ Gehitu diozun gaitako bat TOKa izan da, Nahasmendu Obsesibo Konpulsiboa.

Bai, hori da, eta hortik dator bakarrizketaren izena bera ere. Futbolari izan nintzen garaian pairatzen hasi nintzen nahasmendu hori, eta horri ere lekua egin diot. Bi gaiak uztartuko ditut: lehen mailako jokalarari nintzeneko istorio futbolistikoak eta TOKari buruzkoak.

♦ Nola bizi izan zenuen garai hura?

Zaila izan zen. Buruko osasunaz ez da asko hitz egiten, eta nik une hartan uste nuen bakarra nintzela munduan gaitz hura zeukana. Ezkutuan egiten nituen gauzak, nahiko lotsagarriak ziren eta ez nuen nahi inork ikustea zer egiten nuen. TOK daukan norbaitek dituen konpulsioak irrazionalak dira %95ean, ez dute izateko arrazoirik, eta badaki horrela dela, baina ez da kontrolatzeko gai. Nolabait azaltzeko, TOK daukazunean zerbaitekin obsesionatzen zara eta antsietatea eragiten du, eta antsietate hori baretzeko egin behar duzu konpulsioa. Adibidez, nik sentitzen badut eskuak beti zikinak ditudala eta bakteriak izan ditzakedala eskuetan, horrek antsietatea sortuko dit, eta antsietate hori baretzeko etengabe eskuak garbitu beharko ditut. Eta hori guztia ezkutuan egiten nuen nik, banekielako ez zela normala egiten nuena. Lanbide guztietan izango da zaila gaitz hau kudeatzea. Ni lehenengo mailako futbol jokalaria nintzen, eta ezin nuen gaitz hau nire lanean kontatu. Nire ametsa bete nuen orduantxe eta gaitza azaleratzeak banekien ez zidala lagunduko han goian mantentzen, eta horregatik ixilean gorde nuen gaitza.

♦ Nola moldatzen zinen nahasmendu hori ezkutuan gorde eta lehen mailan jokatzeo?

Ezkutuan eramate horrek ingenioa pizten du. Sinestezina da zenbat gezur txiki asmatu behar izaten nituen uneoro, gaitza ezkutatzeko. Umoretik kontaktzen dut orain bizi izan nuen guztia,

mezu positibo bat zabaldu nahi dudalako. Niri sormena piztu zidan gaitza ezkutatzeko. Obsesioa kolpera iristen da, eta hori baretzeko konpulsioa egin behar duzu, eta hori ezkutatzeko buruari eman behar zaio. Hasierako fasean modu horretan ezkutatu nuen, baina gaitza ezkutatzea ezinezkoa zen momentua iritsi zen, gertukoaren aurrean batez ere.

♦ Zure azalean bizitako une haiek, orain, umoretik kontaktzen dituzu.

Bai, baina ez nuke inor konfunditu nahi: bakarrizketaren zati handiena ez da TOKari buruzkoa. Niretzako zati inportantea da, eta garrantzitsua da niretzat horri buruz hitz egitea, baina bakarrizketaren oinarria beste bat da: buelta ematen diet garai hartako drama txiki eta handi guztiei. Lehenengo

mailan debutatu nuen egunean txartel gorria ikusi eta kaleratu egin ninduten, eta hori ere drama bat izan zen niretzat. Horren ostean, beste egoera dramatiko asko izan nituen futboleant, orduan sufrituarazi egin zidatenak, eta guzti horri ere barre egiten diot bakarrizketan. Horrekin batera bizi izan nuen TOK gaitzari ere egiten diot barre. Benetan sinisten dut umoreak on egiten digula denoi eta norbere buruari barre egiten jakitea oso garrantzitsua dela. Sufriarazten diguten arazoan %90 esango

nuke ez direla existitzen, gure buruan daudela soilik. Badaude baita ere sufriarazten diguten benetako tragediak, baina sare sozialetan *like* gutxi izateagatik sufritzea, esaterako, absurdoa da. Esan nahi dut gure buruak edo gure autostimulak sortutako arazotxoak direla askotan sufriarazten digutenak. Norbere buruari barre egitea da azken batean mundua ikusteko modurik errealistena. Umoreak laguntzen digu konturatzen sufriarazten gaituen arazoak zein absurdoak diren. Argi utzi nahi dut sekula ez nukeela txiste bat egingo TOK duen pertsona bati buruz; nik bizi izan nuenari egiten diot barre, eta hori zilegi dela uste dut. Badakit TOK edukitzea gogorra dela eta asko sufritzen dela, eta ez nioke sekula egoera horretan dagoen bati barre egingo. Nire sufrimenduak soilik egiten dut barre, niri ondo egiten didalako. Umorea benetan botika bat da, eta niretzat oinarritzatkoa izan da azken urteotan. Zorionez, garai hartan baino askoz hobeto nago orain, baina gaitz kronikoa da. Azken batean berarekin bizitzen jakin behar da. Batez ere, urduritasun momentuetan dago arriskua obsesioak pizteko, eta beti adi egotea komeni

“Konturatu nintzen jendeak arreta handiagoa jartzen ziola kontaktzen nuenari, kantatzen nuenari baino”



da. Nik umoreari esker ikasi dut gaitzarekin bizitzen, eta esan dezaket orain ondo nagoela.

♦ **Nola pasatu zinen futbolari izatetik umoregile izatera?**

Futbolari nintzen garaian denbora libre asko izaten nuen, eta denbora libre horretan gitarra jotzen ikasten hasi nintzen. Hala ere batean konturatu nintzen kantuak egiteko gai nintzela, egin nituen kantu batzuk eta kontzertuak ematen hasi nintzen. Kontzertuetan kantuen letrak esplikatzeko nituen, eta konturatu nintzen jendeak arreata handiagoa jartzen ziola kontatzen nuenari, kantatzen nuenari baino, eta ikusleek barre egiten zutela. Orduan hasi nintzen gitarra albo batera uzten, eta gehiago hitz egiten. Hasiera nola-

“Bakarrizketa honek hasieran espero nuena baino gehiago eman dit”

bait erraza izan zen. Oholtzara musika egitera igotzen nintzen, gitarraren babesean, eta umorea egiten nuen, baina inolako presiorik gabe, jendea musika entzutera zihorralako berez. Ia oharkabean bilakatu nintzen komiko. Gero gitarraren babesa utzi eta bakarrizketarako pausoa eman nuen, baina piszinarako jauzi hori ez zen urik gabeko piszina batera jauzi egitea izan, ordurako banituelako jendeari barre

eginarazteko klabe batzuk.

♦ **Zaila al da jendeari barre eginaraztea?**

Bai, ez da erraza. Askotan denok nahi izaten dugu kontaztea zein lan izaten dugun gure lana burutzerakoan, hau da, emaitza ikusten denean denok nahi izaten dugu azaldu horren

atzean dagoen lana. Baina ogi bat erosten dugunean ere ez diogu galdetzen okinari zenbat lan egin duen ogi hori ona izateko. Guri gustatuko litzaiguke jendeak jakitea barre eginarazten dion txiste horren atzetik zenbat lan dagoen, baina konturatzen naiz nik ere ez diodala okinari edo elkarrizketa-tzaileari galdetzen zenbat kostatu zaion bere lana egitea. Baina bai, jendeari barre eginarazteak badauka lana. Lanbide guztiek dituzte euren zailtasunak, baina umorea egitea ez da erraza.

♦ **Lehenengo mailan jokatzera zenuen amets, eta une batzuetan sufrikario bilakatu zen. Baina uste duzu horrek lagundu dizula ondorengo ibilbide honetan?**

Bai, zalantzarik gabe. Asko zor diot Realari. Realak eman zidan nire ametsa betetzeko aukera, nahiz eta gero amets hura ez zen izan nik nahi bezain gozoa. Ez Realaren erruz, baizik eta presioa jasateko nire gaitasun faltagatik. Baina geroa aprobeixatu egin dut Realeko jokalaria izate hura, futbolak jende asko erakartzen duelako. Nire bi bakarriketek futbola dute oinarrian, azken batean, beste gauza batzuk ere kontatu arren, futbolak pizten duelako jendearen arreta. Lehen mailan egin nuen ibilbidea oso lagungarri izan zait.

♦ **Oholtzan ala futbol zelaian sentitzen zara gusturago?**

Futbol zelaietan beti huts egiteko beldurrez egoten nintzen. Futbol zelaira ez galtzera irteten nintzen, eta oholtzara irabaztera irteten naiz. Futbol zelaian oharkabea pasatu nahi izaten nuen, eta oholtzara askoz konfiantza handiagoarekin irteten naiz. Gustura nabil oholtzan, egia esanda.

♦ **Zein erantzun izan du bigarren bakarriketa honek?**

Pasarte batzuk aurreko bakarriketatik berreskuratutakoak dira eta banekien funtzionatzen zutela, baina beste istorio batzuekin beldur nintzen: bakarriketa honek badauka zati dramatikoago bat, bereziki TOKari buruz hitz egiten dudan tarte, eta ez nekien zati horrek nola funtzionatuko zuen. Ez da horrenbeste barre egiteko tarte, istorio horrekin publikoa beste egoera batera eraman nahi izaten dut eta dudak nituen. Zorionez, funtzionatu du. Seguru jende guztiari ez zaiola gustatuko, baina ni pozik nago. Honek guztiak, gainera, ondorio politikak izan ditu, nire hasierako helburutik harago: jende askok idatzi dit pribatutik esanez oso lagungarri egin zaiola nire istorioa entzutea. Nire arazo berbera duen jendeak idatzi dit, eta esan didate munduan bakarrak ez direla jakiteak izugarri lagundu diela. Mezu hunkigarriak izan dira benetan, eta batzuekin pertsonalki jarri naiz harremanetan. Ni ez naiz psikologoa, ezta gutxiagorik ere, baina ahal dudan heinean, nire esperientziatik, laguntzeko prest nago. Bakarriketa honek hasieran espero nuena baino gehiago eman dit. Jendeak barre egiten du, eta batzuentzat, gainera, lagungarri izan da bizitza pertsonalean, beraz, ezin dut gehiago eskatu. Badakit mundu

“Elgoibarrera futboleko jokatzera etortzeak presioa sortuko lidake, baina oholtzara etortzeak motibatu egiten nau”

guztiari ez zaiola gustatuko, baina sortzaile batek hori badaki.


♦ **Elgoibarren aritzeak presiorik eragingo dizu?**

Elgoibarrera futboleko jokatzera etortzeak presioa eta beldurra sortuko lidake, baina Elgoibarrera oholtzara etortzeak motibatu egiten nau. Nire bizitzako bi alor nagusienetan nire buruak oso desberdin jokatzen du. Orain dela hilabete pare bat *Konpromisoa* antzezlanarekin izan

nintzen Elgoibarko Herriko Antzokian, eta ikaragarri gozatu nuen. Oso hunkigarria izan zen publikoan aurpegi ezagunak emanaldiaz gozaten ikustea. Energiatzat beterrik joaten naiz Elgoibarrera, eta oraingoan ere hala joango naiz. Beste herrietan baino tximeleta gehiago sentituko ditut sabelean, seguru, baina herritarrak gozatuazten saiatzea oso motibagarria da.

♦ **Publikoa maskara jantzita egotea oztopo iruditzen zaizu?**

Bakarriketa estreinatzerakoan kezkatzen ninduen horrek, baina zorionez, ez da oztopo eta jendearen barreak entzuten dira. Besterik ez dut probatu, egia esanda, estrenatu nuenetik maskara derrigorrezkoa delako. Baina begietako espresioa ere ikusten da eta igartzen da jendea gustora dagoen ala ez. Alde horretatik ez daukat kezarik.



Banego, banitz, banu... horrek anai asko dittuk: Behin zerbait pasatu eta gero, hipotesiak egiten ibiltzea alferrik dela adierazteko erabiltzen da.

Euskara Plana osatu du Mendaroko Udalak, UEMAk lagunduta

Euskararen erabilera esparru guztietara zabaltzeko asmoz, Euskara Plana osatzeko eskatu zion Mendaroko Udalak UEMArri. 2021erako lehentasunak identifikatu eta zehazteko orduan, 2020ko planaren balorazioa hartu dute abiapuntutzat eta egin beharrekoen artean jaso dute, esaterako, 2020ko urte hasieran Hezkuntza komunitateko eragileekin egindako bilerari jarraipena ematea, biek ala biek ezinbestekoa irizten diotelako Udala, eskola, guraso elkarte eta euskalgintzak norabide berean lan egitea. Horrekin batera, Euskara Taldeari eutsi eta gazteen aktibazioan eta euskalduntze-alfabetatzean eragiteko beharra ere azpimarratu dute. Asmo horrekin, hamar lan-ardatz zehaztu dituzte Udalak eta UEMAk, eta horren barruan 17 helburu. Honakoak dira lan ardatzak: Udalaren euskalduntzea; familia transmisioa, euskalduntze-alfabetatzea eta etorri berriak; arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza, banketxeak, lan mundua...); aisia, kirola eta kultura; irakaskuntza; beste administrazioak (osasungintza, bake epaitegia...), sentsibilizazioa eta ahal duntzea; udalerraren zaintza (ELE, azterketak...) eta dirulaguntzak. Helburuak lortzeko, hainbat ekintza ere aurrekusi dituzte 2021erako, UEMAk zuzenduta edota herriko eragileekin lankidetzan gauzatu nahiko lituzketenak.

2021eko kultur programa eta jarduerak diruz laguntzeko 30.000 euro banatuko ditu Elgoibarko Udalak

Pandemiak herriko kultur sektorean eragin duen kaltearen jakitun da Elgoibarko Udala, eta aurreratu du 30.000 euro banatuko dituela herriko kultur talde eta elkarten artean, haien jardunari laguntzeko. Dirulaguntza jaso nahi duten talde edo elkarteek Udalaren webguneko zerbitzu telematikoaren bitartez aurkeztu beharko dituzte dirulaguntzetarako eskabideak (informazio gehiagorako: *elgoibar.eus*). Kultur sektoreari bideratutako dirulaguntzekin batera, 2021ean Elgoibarko Udalak dirulaguntza izendun hauek emango ditu. Elgoibarko Herri Eskola (27.232,25 euro), IMH (63.546,94 euro), EPA Eibar HHI (900 euro), Elgoibar Ikastola (47.120,68 euro), Elgoibarko Meka (10.365,63 euro), Elgoibar BHI Institutua (18.592,29 euro), EMUDAFE musika eta dantza federazioa (174.105,8 euro), Inazio Bereziartua Musika Eskola (451.900 euro), Elgoibarko Makina Erremintaren Museoaren fundazioa (20.000 euro) eta Soralezeko Udala-Dolmeneko ibilbidea (7.000 euro)

Gaur iluntzean jarriko dituzte salgai 'Goazen' ikuskizunerako sarrerak

Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute gaur iluntzean jarriko dituztela salgai Kutxabank bidez 'Goazen' ikuskizunerako sarrerak, eta bihartik aurrera, Herriko Antzokiko lehiatilan ere eskuratu ahal izango direla, ohiko ordutegian. Apirilaren 18an (domeka) ekarriko dute ikuskizuna Elgoibarrera eta bi saio izango dira: 12:30ean eta 16:00etan. 5 urtez gorako haurrentzako ikuskizuna da, eta sarrerak 3,5 euroan jarriko dituzte salgai haurrentzat eta 5 euroan, helduentzat. Oholtzan, denboraldi honetako sei aktore jardungo dira dantzan eta kantuan.

'Zinemakopa' antzezlanaren emango du Taupadak hilaren 15ean Herriko Antzokian

Dramatitragoak zikloaren barruan, *Zinemakopa* antzezlanaren emango du Taupadak apirilaren 15ean Herriko Antzokian, 19:00etan. *El bolero de Raquel*, *Cabaret* eta *Tacones lejanos* filmetan oinarritutako antzezlanaren da. Ibai Leon, Oihane Gartzia, Aitor Guisasola, Nagore Cid, Jon Olivares, Sara Iriondo, Juan Luis Ines, Andoni Urbieto eta Itsaso Alguacilek osatzen dute aktore taldea, Edurne Lasa da zuzendaria, Joxemari Larrañaga teknikaria eta Oihane Gartziaarena da kantua. Taldearentzako jostun lana egin dituztenak, berriz, Mari Tere Iraegui eta Mari Karmen Arriola izan dira.



'Begiekien entzutekoak' ziklo berezia antolatu du Gararock taldeak Mendaron, apiriletik ekainera bitarterako

Mendaroko kultur eskaintza aberasteko bere alea jarri nahi izan du Gararock Taldeak. Koronabirusaren pandemiagatik, iaz ezin izan zuten Gararock jaialdia antolatu eta arantza hori ere kendu nahi zuten. Hala, lau kontzertutako zikloa antolatu dute apiriletik ekainera bitarterako, Udalaren laguntzarekin. Kontzertuak domeketan izango dira, 19:00etan, San Agustin kulturgunean (sarrerak 2 euroan jarriko dituzte salgai). Muga taldeak hasiko du zikloa, apirilaren 18an, eta haren atzetik etorriko dira, Testura (maiatzak 2), Mursego (maiatzak 30) eta Munlet (ekainak 13) taldeen kontzertuak. Antolatzailuek aurreratu dute, musika eta irudia uztartuko dituztela lau taldeek euren emankizunetan.



Eneko Etxanizek bigarren garaipena eskuratu du Gazteen Gipuzkoar erako Aurreku Txapelketan, Amasa-Villabonan



Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako sei dantzarik hartu zuten parte Gazteen Gipuzkoar erako Aurreku Txapelketako ligaxkako bigarren jardunaldian, Amasa-Villabonan. Denak ere oso txukun aritu zirela nabarmendu dute eskolako arduradunek, baina Eneko Etxanizek D mailan lortutako garaipena azpimarratu zuten. Uxue Cabrera, Elaia Etxaniz, Duna Santos, Nerea Galindo, Malen Galarraga eta Eneko Etxanizek hartu zuten parte, beste hainbat herritako gazteekin batera. Ligaxkako hirugarren saioa lezokatuko dute, apirilaren 17an. Unax Ansola, Amaia Mendia, Maialen Pizarro, Uxue Cabrera eta Jon Etxeberria joango dira Elgoibartik.

Liburu-truke azoka antolatu du Arno Guraso Elkarteak mendaroko eskola umeentzat

Abenduan antolatu zuten jostailu-truke azokak izandako harrera onaren ondoren, liburu-truke azoka antolatu du Mendaroko Arno Guraso Elkarteak apirilera, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Arnotik zehaztu dute ekimena Mendaro ikastolako ikasleei zuzendutakoa dela. Ikasle bakoitzak azken bi urteetan irakurritako liburu bat edo bi eraman ahal izango ditu azokara, baina liburu bakoitzarekin batera txartel bat ere bete beharko dute haurrek (Txartelak ikastolan banatuko dizkiete). Behin txartela osatuta, hilaren 16an lagako dituzte liburuak udaletxeko arkupeetan Arnok jarriko duen mahaian. Liburuaz uztean, aleko tiket bat jasoko dute parte-hartzaileek, eta hilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunean, tiket bakoitzeko beste liburu bat eskuratu ahal izango dute.

EXPRESS ESKAINTZAK!

3TI978B BALAY GARBIGAILU INTEGRAGARRIA

639 €



- 10 urteko bermea duen aparteko motor isila.
- Aqua Control Plus: uraren sarreraren doikuntza kargaren arabera, emaitzarik onenak uraren gutxieneko kontsumoarekin.
- LED display-a, gelditzen den denbora, programaren egoera eta 24 led display-a duen irakurgailu pantaila.
- Programa superazkarrak 15/30 min.
- Etenaldia + karga funtzioa.
- 3G sentsorea.
- Barruko LED argiztapena.
- 7kg karga.
- 1.200 b/min.
- 8KG Kargako garbigailua 699 €



Zure sukaldean erabal integratuta, garbigailu hau ez da ikusten, baina haren emaitza handiak bai.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Denak prezioak. Produktuak agortu arte.



LAGUNAK
colchonaria textil hogar

ZERBITZU BERRIA!

Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara
Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko eta **MENDAROKO**
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



**Automakilaje-tailerren
hilabetea**

Hitzordua hartzeko:
646 563 706

Urazandi 9, behea - Elgoibar - www.kimabioestecika.webkoibox.com



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
Astelehenerdik ostiratera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbitzua daukagu.
Datu ardua hartzen.

Apirilaren 17rako 'Herriko sekretuak' izeneko orientazio proba antolatu dute Elgoibarren familientzat

A txutxiamaikaren Kiribil-duz egitasmoak, Elgoibarko Ludotekak eta Morkaiko Mendizale Elkarateak familientzako orientazio proba antolatu dute apirilaren 17rako (10:30-13:30). *Herriko sekretuak* izena eman diote probari, hain justu ere herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera eman nahi dietelako familiei. Martitzenean zabaldu zuten izena emateko epea, eta apirilaren 13ra arte egongo da horretarako aukera. Antolatzaileek jakinarazi dute familiak eman ahal izango dela izena sei euro ordainduta (bazkideek: 5 euro), eta orientazio probez gainera, beste ekintza mota batzuk ere egin beharko dituztela parte-hartzaileek. Izena emateko bi bide zabaldu dituzte. Internet bidez, *elgoibarkoizarra.eus* webgunean sartuta, edota aurrez aurre Elgoibarko Izarraren bulegora (Aita Agirre, 3. solairua) edota Ludotekara joanda.



137 umek parte hartu dute Elgoibarko Udalaren Udaberriko Kirol Campusean

Koronabirusaren pandemiaren erruz, iaz ez zuten Aste Santuko kirol campusik egin Elgoibarren, baina duela bi urteko datuak aintzat hartuz gero (28 umek eman zuten izena), aurten izen-emateak nabarmen handiagoak izan dira, guztira 137



umek parte hartu dutelako Udaberriko Kirol Campusean. Elgoibarko Udal Kirol Patronatukoek uste dute bi arrazoiri erantzuten diela gorakada horrek: batetik, eskaintza bera indartu izanari, eta bestetik, udaberriko oporraldirako Jaurlaritzak ezarritako murrizketei. Gaur dute umek azken eguna, baina egunotan denetarik egin ahal izan dute. Hamahiru umez osatutako lau taldeetan ibili dira haurrak eta 11 begirale izan dituzte saioak gidatzeko. Aurreratu zuten eguraldiak lagunduz gero, jarduera guztiak aire librean egingo zituztela, eta eguraldia ere lagun izan dute.



Hondarribitik Ondarroarako bidean, gaur, Elgoibartik eta Mendarotik igaroko da Itzulua

Euskal Herriko Itzuliko bosgarren etapa jokatuko dute gaur, Hondarribitik Ondarrura artekoa, eta bidean, Elgoibartik eta Mendarotik ere pasatuko da tropela. 160,20 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute txirindulariek. 13:30ean abiatuko dira Hondarribitik, eta antolakuntzatik zabaldu duten ibilbide-orriaren arabera, 16:37ak aldera iritsiko dira azkarrenak Elgoibarrera, Aiastiatik behera, ordurako 137 bat kilometro eginda. Elgoibartik kostalderako bidera hartuko dute, errepide nagusitik, eta Mendarotik, 16:50ak aldera pasatuko dira.

Maiatzean jarriko dute berriro martxan Igeriketa Eskola

Elgoibarko Udal Kirol Patronatutik jakinarazi dute maiatzean jarriko dutela berriro martxan Igeriketa Eskola. Izena emateko epea martitzenean zabaldu zuten eta hilaren 16ra arte egongo da izena emateko aukera. Hala ere, antolatzaileek argitu dute joan zen urteko martxoan ikastaroak bertan behera gelditu zirenean Igeriketa Eskolako 1, 2, 3, 4 eta 5. mailan ari zirenek bakarrik izango dutela izena emateko aukera (zazpi talde zeuden orduan). Ikastaroak, beriz, maiatzaren 3an hasiko dira. Plazarik gelditzen bada, apirilaren 19an Izurde eta Marrazo mailei zabalduko zaie aukera. Izena emateko *olaizagaharrera@hotmail.es* helbidera idatzi behar da. Astean saio bakarra emango dute, 50 minutukoa, baina apirilaren 20an jakinaraziko dituzte ordu zehatzak. Sei ikasleko taldeak izango dira eta zozketa egingo dute talde bakoitzeko plazak banatzeko.



Alejandro Rey Tobajas

2021eko apirilaren 1ean hil zen, 73 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

Adoración Garrido Navarro

2019ko apirilaren 9an hil zen 78 urte zituela.

**"Hemen ez zauden arren
beti izango zaitugu bihotzean"**

Etxekoak



II. URTEURRENA

M^a Luisa Gárate Aizpitarte

2019ko apirilaren 9an hil zen, 84 urte zituela.

**Zure irribarre goxoa
eta maitasuna
beti izango dira
gure bihotzean.**

Etxekoak



Manuel Ramirez Diez

2021eko martxoaren 31n hil zen,
84 urte zituela



***Erraza izan da zu maitatzea,
ezinezkoa zu ahaztea,
maite zaitugu.***

Familiakoak



Julian Uribe Ondarre

2021eko apirilaren 1ean hil zen Orozkon,
77 urte zituela.



***Lagun artekoetan
sukaldari fina.
Kultur transmisioan,
gizon nekaezina.
Azkenik topa(t)u zen(d)un
zure lagun mina.
Gure baitan betiko,
lagun ahaztezina.***

Maitasunez, Uribe Odria familiak




Maria Jesus Apaolaza Epelde

2021eko martxoaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Zure lagunak



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICNA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicna.eus
info@bicna.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrigunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industrigunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrigunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Aroztegia Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA
Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

- Aroztegiak
- Erreformak

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tender@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 1
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

- Igeltseritza
- Pintura

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea



1991

Aste honetako erretratu zaharra Aitor Eizagirrek lagatakoa da. 1991. urteko argazkia da, eta bertan ageri dira Ego Toki atletismo taldeko korrikalariak, estreinatu berri zituzten jantziekin. Gogor entrenatzen ziren gaztetxoak, eta lehiaketetan ere ibiltzen ziren. Garai hartan Elgoibarko atletismo taldeak Ego Toki izena zeukan, eta gerora sortu zuten Mintxeta Atletismo Taldea. Urte hartan, oraindik Mintxetako kirolgunerik ez zegoen eta Pista Beltzean entrenatzen ziren gazte horiek. **Atzean:** Agurtzane Arriola, Sonia Zambrano, Argiñe Gabilondo, Pilar Arriola, Junkal Arriola, Carmen Perea, Nati Garcia, Isabel Ruiz. **Behean:** Javi Santamaria, Luis Santamaria, Alberto Revuelta eta Jose Gurrutxaga (+).

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



BARREN

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan.

☎ 643 977 786

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Berehala lanean hasteko prest nago.

☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean zein etxean. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulazioa daukat.

☎ 602 490 595 / 641 614 236

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke eta baita etxeko lanak egin ere. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. ☎ 631 980 531

Nagusiak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Arduratsua naiz, eta eskarmentua eta beharrezkoa den titulua ditut. ☎ 632 49 06 49

Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz. Eskarmentua daukat eta soziosanitario titulazioa ere bai.

☎ 632 935 970

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan eta asteburuetan lan egiteko prest nago. Legezko egoeran nago eta erreferentzia onak dauzkat ☎ 643 601 205

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat.

☎ 626 490 986

Eskaintza

Udan umeak zaintzeko pertsona bat behar dut. ☎ 662 066 896 (17:00etatik aurrera)

Emakume euskalduna behar da baserrian emakume nagusi bat zaintzeko. Autoa izatea hobesten da.

☎ 661 023 445

ETXEBIZITZA.....

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administratzaileentzako Kontuzkoa



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioerako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure etxebizitza saldu nahi dugu. Urteetan etxejabe guztiok ekarpen berezia egin dugu komunitateko kontuan, higiezin birgaitzeko obra bat egiteko. Jakin nahi nuke nire jabetzaren salmentagatik orain arte jarritako zenbateko horren banakako likidazioa eska diezaiokean administratzaileari.

Finken administratzaileak ezin dio likidazio indibidualik egin etxebizitza bat saltzen edo erosten duen jabe bakoitzari; izan ere, urteko batzar orokorrean aurkezten dira likidazioak, eta han onartu edo baztertzen dira. Hortaz, pertsona batek jabetza bat saltzen duen bakoitzean, ez da banakako likidaziorik egin behar. Pisua edo lokala jabetza zorduna edo hartzekoduna da, eta erosleak erantzun edo onura aterako dio salmentaren unean dagoen saldoari. Era berean, jabe berriak egin nahi diren obren ondoriozko etorkizuneko derramak ere ordaindu beharko ditu. Erosleak izango du kasu horretan erantzukizuna, jabe berriak. Legeak adierazi bezala, derramak unean uneko jabearen esku geratzen dira. Legea hobekuntza-obrei buruzkoa bada ere, ulertu behar da ohiko edo ezohiko gainerako derramei ere badagokiela.

ONDORIOA: Ez dago diru hori itzultzeko betebeharririk, salerosketa bat dagoen bakoitzean. Jabe berriak onura edo kalte egiten dio pisu edo lokalaren egoerari; izan ere, diru kopuru bat alde izan dezakeen bezala, aurrekontu arruntean kontrakoa ere gerta daiteke.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak martitzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Eulali!** Egundera pasa genuen astelehenean zure 9. urtebetetze eguna ospatzen. Muxu handi pila bat berriro.



Zorionak, aittitta **Enrike!** Bihar 90 urte oparo! Egundera batean zuegunarekin jaso dugunaren erdia edo laurdena sikiera itzultzerarik iristeko gai izan gaitzela! Segi izaten! Besarkada bat denon partez.



Zorionak kuadrillako txikiari, martitzen 2 urte bete zituelako. Patxo handi bat, **Lur**, etxeko eta lagunaren partez.



Zorionak gure altxorari! Astelehenean 6 urte! Patxo handi bat, **Oier**, familiako guztion eta bereziki, amama Tomasaren partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



9 BARIKUA

18:00 'Alternatiba berria basogintzan'. Mendaroko Udalak antolatuta. San Agustín aretoan.

18:30 Argazki erakusketa: 'Universo bosque'. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, Jesus Rocandioaren argazkiak jarriko dituzte ikusgai apirilaren 24ra arte.

19:00 Bakarrizketa: 'FutbolisTOK'. Zuhaitz Gurrutxagak aurkeztuko du, Herriko Antzokian. Euskaraz.

15 EGUENA

19:00 Antzerkia: 'Zinemakopa'. Taupadakoez antzeztuko dute, Herriko Antzokian.

16 BARIKUA

19:00 Bakarrizketa: 'FutbolisTOC'. Zuhaitz Gurrutxagak aurkeztuko du, Herriko Antzokian. Gaztelaniaz.


Zinea (Herriko Antzokian)



'Non dago Mikel?'
10 zapatua: 19:00
11 domeka: 19:00
12 astelehena: 19:00



'Kranston ikastetxea: Munstroen eskola'
11 domeka: 16:30



'Nuevo orden' (Ongarri zinekluba)
14 eguaztena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

9 BARIKAKUA	10 ZAPATUA	11 DOMEKA	12 ASTELEHENA	13 MARTITZENA	14 EGUAZTENA	15 EGUENA	16 BARIKAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarakurutz, 7 (Eibar)
943 201 912



IV. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

***Nahiz eta bihotza geldirik izan
eta begiak itxirik,
guretzako beti
iraungo duzu bizirik.***

Familia



IV. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



HARITZ



IV. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

Zure oroimenak indartzen gaitu.



ELGOIBARKO UDALAREN
TXISTULARI TALDEA



Elgoibar BHI

www.elgoibarbhi.eus

2021-22 ikasturterako Batxilergorako Onarpena Apirilaren 12tik 23ra (on-line zein ikastetxean)

BATXILERGOA (BH)



GIZARTE ZIENTZIAK
HUMANITATEAK

OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNIKA

ARTISTIKO MUSIKALA

Giza eta
Gizarte
Zientziak

Zientziak

Arteak



BATXILER ARTISTIKO MUSIKALAREN ATE IREKIAK: APIRILAREN 15EAN, 17:00TIK 19:00RA.

943 899 316

013431aa@hezkuntza.net



baikara

